



■ GABONAK

Opariz beteta iritsiko da gaur Olentzero, Santiomenditik behera

17:30etan jarri dute hitzordua kiroldegian. Handik, Joseba Barandiaran plazara joango dira kalejiran. Preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa ere aterako da 16:00etan Oialumetik.

UMEEK hainbeste itxarondako eguna iritsi da. Gaur jaitsiko da Santiomenditik behera Olentzero eta gauean zehar opariak banatuko ditu etxez etxe. Aurretik, ordea, geldialdia egingo du herrian. 17:30etan, kiroldegitik abiatuko da eta Joseba Barandiaran plazara joango da haurren gutunak jasotzera. Xaguxarrek antolatuta, kalejiran joango dira berarekin eta animatzeko dei egin dute.

Preso eta iheslariak, gogoan Arratsaldeko 16:00etan, preso eta iheslariak gogoan, Olentzeroa aterako da Oialumetik. Handik, herrirako bidea egingo dute.

Udaletxea, kultur etxea eta kiroldegia, itxita

Gabonetan, Udal eraikinak itxita egongo dira hainbat egunetan. Udaletxea eta kultur etxea itxita egongo dira gaur, bihar, ostirala, abenduak 31 eta urtarrilak 1, 5 eta 6 (kultur etxea irekita egongo da umeen joko aretorako). Kiroldegia, berriz, gaurtik urtarrilaren 1era eta 6an ere itxita egongo da. Egun horietan, Hernaniko kiroldegia erabiltzeko aukera izango da.

Hondakin bilketan, aldaketak Bihar eta ostiralean, paper eta kartoiari dagokionez, bilketa berezia egingo da. Kontenedoreak jarriko dira Joseba Barandiaran plazan eta Arrobitxulon



Gabonetako kontzertua eskaini zuten larunbatean. Argazki gehiago, interneten.

Papera eta kartoia ateratzeko, kontenedoreak jarriko dituzte J.B. plazan eta Arrobitxulon.

(Udalaren lokal ondoan).
Ordutegia: bihar, 18:00-21:00; eta ostiralean, 07:00-14:00.

Bestalde, atez ateko bulegoak ordutegi berria izango du urtarrilaren 1etik aurrera: astelehena eta asteazkenetan, 09:00-11:00; eta asteazkenetan, 11:00-13:00. Eta abenduaren 30etik aurrera, errefusaren bilketaren 2015eko egutegia banatuko da etxez etxe, kultur agendarekin batera. Errefusa biltzeko lehenengo eguna, urtarrilaren 11 izango da.

Ostiralean sorpresa, Gaztelekuan

Gaztelekuan, egitarau berezia antolatu dute Gabonetarako: gaur eta bihar itxita; ostirala, sorpresa; larunbata, euskaren aldeko lasterketa; igandea, Inuxente Eguna (11:00-14:00); abenduak 29, itxita; abenduak 30, urte zahar festa; abenduak 31 eta urtarrilak 1, itxita; urtarrilak 2, zinera; urtarrilak 3, txokolate museora; eta urtarrilak 4, futbito txapelketa.

Umeentzako ekintzak, Gabonetan

Umeentzako hainbat ekintza martxan dira astelehenaz geroztik: Joko Aretoa kultur etxean, 9-12 urtekoentzat (11:00-13:00 eta 16:00-18:30); Ludoteka eskolan, 4-12 urtekoentzat (10:00-13:00); eta Jolas Txiki kiroldegian, 2-5 urtekoentzat (08:30-13:00).

Gabonetako kontzertua

Larunbatean, Gabonetako kontzertua eskaini zuten Udalak, Aiztondo abesbatzak, Astigarragako Herri eskolak eta Norberto Almandoz musika eskolak. Izaera solidarioa izan zuen kontzertuak eta Saharako errefuxiatu kanpamendurako lehengaiak bildu zituzten. ■

■ LASTERKETA HERRIKOIA

Euskeraren aldeko eta Inuxente Eguneko lasterketa, larunbatean

Bi ordutegi izango dira: 16:30etan txikiak, eta 17:30etan, nagusiak.

EUSKARAZ bizi nahi dut! eta Inuxente Eguneko lasterketa herrikoia antolatu dute Udaleko Kirol Sailak eta Mundarro kirol elkarteak. Larunbatean izango da,

Joseba Barandiaran plazan. Adinaren arabera, bi ordutegi izango dira. 16:30etan, 0-5, 6-11 eta 12-16 urtekoek izango dute parte hartzeko aukera. 17:30etatik aurrera,

berriz, 17 urtetik gorakoekin txanda izango da. 6 km egin beharko dituzte.

Izen ematea bertan izango da 16:00etatik aurrera. Prezioa: 5 euro. ■

■ EGUTEGIARIK

Udal egutegiak, eskuragarri

Udaletik jakinarazi dutenez, dagoeneko eskuragarri daude 2015eko Udal egutegiak. Ale bat nahi duenak udaletxe edo kultur etxetik pasa behar du. ■

■ AEK

Korrika laguntzaile egiteko aukera

Korrika 19ri begira, Hernanialdeko AEK martxan jarri da eta laguntzeko prest dagoen edonork, Astigarragako AEKn edo Hernanikoan laguntzaile izateko aukera du. Laguntzaile egiten diren guztiek, 12 euroren truke, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Durangoko Azokan eta Euskal Herriko ehunka komertzio-tan beherapenak izango dituzte. Leguntzaile txartela eta katalogoa josoko dituzte. Horrela, Korrika eta AEKri laguntza emango diote. Horrez gain, gogorarazi dute Korrika 19 arropa eskuragarri dagoela bi euskaltegietan. ■

Mariskadaren zozketa, gaur

Urtero bezala, Hernanialdeko AEK euskaltegiak mariskada bat zozketatuko du. Zozketa gaur izango da. Goizez (12:00-14:00), Hernaniko Plaza Berrin izango dute postua eta arratsaldean (19:00-21:00), Gudarien Plazan. Zozketa hantxe bertan egingo dute. ■

■ PRESO ETA IHESLARIARIK

Kontzentrazioa, ostiralean

Etzi, hilabeteko azken ostirala izanik, kontzentrazioa egingo dute preso eta iheslariak etxeratze eskatuz. 20:00etan izango da Joseba Barandiaran plazan. Ohi bezala, mariskadaren zozketa ere egingo dute. ■

■ UDALA

Partehartze orriak, helbide berria

Udalak .eus domeinua dauka orain eta aldaketak tarteko, partehartze web orriaren helbide osoa aldatzeko aprobeztatu du. Hemendik aurrera: partehartu.astigarraga.eus. ■

Blanne
kafetegia

Kale nagusia 40
Astigarraga
943 55 78 49

LIBURUDENDA-OPARIAK

Anuska

kale Nagusia, 62
943 55 31 97
20115 ASTIGARRAGA

☎ **TELEFONOAK** | Taxiak: 943 55 52 77 | Udaltzaingoa: 092 | IDYA: 943 46 46 22 (Hernani)

Autobusak: Areizaga - 943 45 27 08 | Anbulatorioa: 943 33 56 44

✚ **FARMAZIAK Egunez:** | ASTEAZKENA **Odrizola** Idiazabal 18, Urmieta - 943 334014 | OSTEGUNA **Urrutia** Etxeberri auzoa 1 (Florida), Hernani - 943 557738 | OSTIRALA **Castilla** Urbieta 7, Hernani - 943 552941 | LARUNBATA **Odrizola** Idiazabal 18, Urmieta 943 334014 | IGANDEA **Odrizola** Idiazabal 18, Urmieta - 943 334014 | ASTELEHENA **Chucua** Kardaberaz 48, Hernani - 943 5517931 | ASTEARTEA **Castilla** Urbieta 7, Hernani - 943 552941 | **Gauetz: Aizpuru** Latsunbeberri 11, Hernani - 943 336077

EGURALDIA



GAUR Ez da aldaketarik espero. Izotzarekin eta laino hondar batzuekin hasiko dugu eguna, baina gainerako orduetan oskarbi egongo da. Temperatura pixka bat jaitsiko da. Min.3° / Max.13°.



BIHAR Fronte bat iritsiko da eguerdi partean edo arratsaldeko lehenengo orduan eta euria egingo du. Batez ere, iluntzetik aurrera egingo du. Min.5° / Max.13°.

(euskalmet)

UDALA - PARTEHARTZE ORDENANTZA

«Batzordera etortzea nahi dugu, ordenantza ezagutzera»

Partehartze ordenantzaren zirriborroa osatu da eta prozedura administratiboa abiatuko da orain. Batzordetik eta Plenotik pasako da.

AURREKO astelehenean (abenduak 15), partehartze ordenantzaren zirriborroa aurkeztu zien herritarrei Andoni Gartzia alkateak. Herritarren ekarpenekin osatu du zirriborro hau Udalak. Horretarako, 3 bilera egin dira eta internetez ere ekarpenak egiteko aukera izan dute herritarrek.

Orain, prozedura administratiboa abiatuko da ordenantza indarrean jartzeko. Lehenengo, guztiz osatuko da eta gero, partehartze batzordera bideratuko da. Udalak gogorazazi du, batzorde guztiak herritarrei irekita daudela, eta astigartarrak animatu nahi ditu bereziki batzorde honetara hurbiltzeko, «Udalaren eta herritarren arteko harremanetarako horren garrantzitsua izango den ordenantza hau ezagutzera». Bertan eztabaidatu eta gero, Plenora eramango da behin behineko onarpena emateko. Ondoren, 30 eguneko epean, alegazioak aurkezteko aukera izango da. Azkenik, Plenoak eman beharko dio behin betiko onarpena. Epeak

betetzen badira, 3 hilabeteren buruan Astigarragak partehartze ordenantza izango du.

Gobernu Taldea kritikiko azaldu da EAJrekin: «Ekarpenak egin dituzten herritarrenganako errespetu falta da».

Gobernu taldea pozik, emaitzarekin

Gobernu taldeak, ekimenaren balorazioaren berri eman du eta oso pozik agertu da: «Oso aberasgarria izan da eta ekarpenak egin dituzten herritar guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu».

Baina gaineratu du ez dela dena positiboa izan eta EAJk prentsan zabalduko kritikak izan ditu hizpide: «EAJk egingo adierazpenak ez dira oso ulergarriak. Partehartze prozesua eta ordenantza osatzeko bilera hauek kritikatzeko dituzte eta ez dira bileretara azaldu ere egin. Ordenantzaren proposa-

mena nola kritikatu dezake norbaitek bere edukia ezagutu gabe? Bileretara etortzeko aukera izan dute, beste edozein kolektibo edo herritar bezala, baina ez etortzea erabaki dute; eta alkatetzako bulegoko ateak ere parez pare zabalik dituzte, beste edozein herritar edo talde bezala, gai honen edo beste edozeinen inguruan informazioa eman eta eztabaidatzeko. Inoiz ez dute, ordea, esfortzu txiki hori egiten. Dirudienez, EAJ hauteskunderen dinamikan bete-betean sartuta dago eta mahai gainean jartzen den edozer gauzaren aurka jotzen dute, kasu gehienetan, berau ezagutu ere egin gabe. Garraioaren hiriarekin ere berdin gertatu zen, eta Udalak helegitea ez jartzea salatu zuten, Udalak helegitea jarria zuenean. Jarra hori oso larria da gainera, bileretara etorri eta Astigarragan parte hartzea sustatzeko asmoz ekarpenak egin dituzten herritarrenganako errespetu falta ikaragarria direlako eta egin duten ekarpena gutxien ari direlako».

UDALA

Uholdeen aurkako dokumentazioa, interneten

Uholdeen aurkako proiektuen dokumentazio guztia interneten dago: memoriak, planoak, pleguak, aurrekontuak... www.astigarraga.eus.

TXIRRINDULARITZA

Astigartarrek postuei eustea lortu dute

Gipuzkoako Challengeko bosgarren jardunaldian, lan ederra egin zuten Donosti Berri taldeko txirrindulari astigartarrek eta sailkapen orokorreko postuei eustea lortu dute. Juniorretan, Gorka Urkiolak laugarren postuan jarraitzen du eta 39 puntutara dauka liderra. Kadeteetan, Tomas Oterminek ere saio ederra egin zuen eta Dania-rraan eta Scrachean sailkatu zen. Maila berean, Urko Semperenak ez zuen bere egunik onena izan, baina bere hirugarren postuari eustea lortu zuen, sailkapen orokorrean. Liderra 40 puntutara dauka eta bigarrena, 4 puntutara. Larunbatean seigarren jardunaldia izango da 16:00etatik aurrera Belodromoan.

ESKU PELOTA

Egoitz Olarrak ez zuen bigarren jardunaldia jokatu

Trinketean, Gipuzkoako Banakako Txapelketa aurrera doa. Aurreko astean, bigarren jardunaldia jokatu zen. Egoitz Olarra astigartarra Imanol Arrutiren (Behar Zana) aurka jokatzeko zen larunbatean, baina ez zen garaiz iritsi eta galdutzat eman zioten partidua: 40-0. Bestalde, larunbatean argitaratu bezala, Oier Gurutzealde 40-23 irabazi zion loritz San Sebastian hermaniarari.

FUTBOLA

Beheko postuetatik ezin atera

Mundarrok galdu egin zuen larunbatean Allerruren aurka: 4-0. Moreek nahiko lan dute azken aldian puntuak eskuratzeko eta azkenaurerako postuan jarraitzen dute. Aste honetan ez dute partidurik izango. Ea urte berriarekin batera garaipenak iritsten diren!

SASKIBALOA

Euskal Ligako neska eta mutilek, irabazi

Euskal Liga bigarren mailako bi taldeek irabazi egin dute asteburuan. Neskak 53-34 nagusitu zitzaizkien Askartza taldeari eta mutilek 54-76 Leioari. Neskak laugarren postuan daude, hirugarrenarekin berdintuta, eta liderra eta bigarrena puntu batera dauzkatela. Mutilek, beheko postuetatik urruntzeko pauso ederra eman dute. Gipuzkoako ligan, berriz, Mundarro-La Salle ezin irabazi jarraitzen du azkenaurerako postuan. 43-63 galdu zuen DKSren aurka.

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		
Erreg. Preferentia	Nierru/Mundarro	4-0
Ororeko jubenila	Pasaia/Mundarro	2-1
1go jubenila	Lizaso Santo Tomas/Mundarro	0-5
Ororeko kadetea	Tolosa/Mundarro	2-0
1go kadetea	Mundarro/Amara Berri	1-2
Ororeko infanila	Mundarro/Vasconia	0-2
1go infanila	Jesusinas/Mundarro	3-1
Infantil txiki	Mundarro/Durboa	7-0
Alebinak	Añorga/Mundarro	2-6
SASKIBALOA		
2. E. Liga neska	Mundarro-La Salle/Askartza	53-34
2. E. Liga mutilek	Leioa/Mundarro-La Salle	54-76
Gipuzkoako 1go m.	Mundarro-La Salle/DKS	43-63
Jubenilak	Mundarro-La Salle/Hernani	57-38
Kadete mutilek	Clartzungo saskilagunak/Mundarro-La Salle	37-32
Kadete neska	Informacionel/Mundarro-La Salle	50-57
ESKU PELOTA - Gipuzkoako Trinkete Txapelketa		
1go maila	Egoitz Olarra/Behar Zana	0-40
1go maila	Oier Gurutzealde/Hernani	40-23



'Aitorxo' esketxaren egileetako batzuk. Agin Laburu Kultura eta Euskara zinegotziaren eskutik jaso zuten saria.

MOTXIAN EBY ESKETX LEHIAKETA

Esketxik onena, astigartarrek egina

Aitorxo izeneko esketxak irabazi du Motxian Eby esketx lehiaketa, Buruntzaldean, eta esketx hori astigartarrek egina izan da. Aitor Vazquez, Nerea Vazquez, Lide Aldalur, Nahia Azparren, Hodei Exposito, Jon Prior, Julen Ollokiegi eta Oier Hernandez dira egileak. Horrez gain, publikoaren saria ere jaso dute eta denera, 350 euro irabazi dituzte. Aurreko ostegunean banatu zituzten sariak Udala ordezkariak. Bigarren saria, lasartearek lortu zuten *Udarako memoriak* esketxarekin. Eskualdetik 12 esketx aurkeztu dira denera: 2 Astigarratik, 8 Lasarte-Oriatik eta 2 Andoaindik. DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa izan da, Buruntzaldea eta Oarsoaldeko Euskara Sailek bultzatua. Oarsoaldean, *Masajista* eta *Ohea* izan dira sarituak. Esketx irabazleak ikusgai daude: www.motxianeby.com.